


Proiektuen bidezko ikaskuntza

1 Gaiari buruzko informazioa bilatu eta aukeratu.




2



Informazioa ulertu eta interpretatu.

3

Errealitatea hobetzeko ikusizko proposamenak planifikatu.




4



Planifikatutako sormen prozesua gauzatu iritzia emanez.

5

Sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatu eta hobekuntzak egin.




6



Lortutako emaitza aurkeztu eta mundura zabaldu.

SARRERA



Infografia honetan Plastika arloan proiektuak burutzeko jarraitzen ditugun urratsak azaltzen dira.

Proiektu bat prestatzeko orduan, gai batzuk izan beharko ditugu kontuan, besteak beste:

1. **Proiektuaren sorrera.** Nola aukera dezakegu proiektua burutzeko ideia edo gaia ?
2. **Proiektuaren helburua.** Zein da lortu nahi dugun erronka ? Bukaerako produkturik egongo al da ? ZER egingo dugu ? NOLA egingo dugu ? ZERTARAKO egingo dugu ?
3. **Proiektua curriculumean.** Nola txertatu ahal dugu proiektua gure arloko helburuak, edukiak, ebaluazioa, jarduerak, metodologia, baliabideak eta abar kontuan izanik ?
4. **Proiektuaren hedapena.** Nola zabalduko dugu ikasleekin egin dugun lana eta lortutako emaitzak edo produktuak ?
5. **Proiektuaren aurkezpena.** Nola aurkeztuko diegu ikasleei eta Hezkuntza Komunitateari gure proiektua ?

Gai hauen bitartez proiektuaren nondik – norakoak finkatuko ditugu.

1. PROIEKTUAREN SORRERA

Proiektu bat sortzeko ideiak era askotakoak izan daitezke: ikasleen interesetatik, data esanguratsu batetik edo Hezkuntza komunitatean sortutako proposamen batetik sor daiteke proiektuaren gaia. Nahiz eta aukera hauen jatorriak euren artean desberdinak izan daitezkeen, denetatik sortu ahal dira ikasleekin proiektu batean lantzeko ideiak.

Zenbait proiektu gainera, aukera desberdinetako ideiak elkartuz sor daitezke. Proiektu baterako ideiak biltzeko aukera bat ideia desberdinak zerrendatzea izan daiteke. Ideien zerrenda egiteko, ondorengo sailkapena erabil dezakegu:

1. Proiekturako ideien jatorri posibleak:

- IKASLEEN INTERESAK: ikasleek euren intereseko gaiak proposatu ahal dituzte, bai banaka, bai taldeka. Ikasleek gaiak modu askean proposa ditzakete, edo gai orokor batetik eratorritako azpi-gaiak izan daitezke.
- INSPIRAZIO ITURRIAK: liburuak, filmak, prentsako albisteak edo abestiak proiektuak sortzeko ideiak izan daitezke. Filma bat ikusi eta aztertu ondoren, bertan agertutako, landutako edo adierazitako gaia edo arazoa proiektu bat burutzeko ideia egokia izan daiteke. Momentuan prentsan agertutako albisteak edo gaiak proiektu batean lantzeko interesgarriak izan daitezke, batez ere gure ingurune hurbilekoak edo guri zuzenean eragiten diguten gaiak baldin badira.
- HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN PROPOSAMENAK eta ESKARIAK: eskolatik bertatik sortutako proposamen edo eskariak izan daitezke. Pertsona edo talde batek proposatutakoa izan daiteke: irakasle batek, irakasle talde batek, arloko Mintegiak, gurasoen elkarteak, Zuzendaritza taldeak, kirol taldeak eta abar. Gaiak eskola bizitzarekin harreman izan dezake edo ez.
- GERTAKARIAK: gure ingurune hurbilean, hirian, herrian zein kanpoan gertatutako gauza bitxiak.
- EGUN BEREZIAK: ospakizunak, urteurrenak edo jaiak.
- GIZARTEAREN PROPOSAMENAK: lehiaketak, azokak eta bestelakoak.

2. Ideia edo aukeren deskribapena: atal honetan ideiaren azalpena edo deskribapena egingo dugu, beharrezkoa dugun zehaztasun maila erabiliz. Gero eta azalpen zehatzagoa egin etorkizunean erabiltzeko gero eta informazio gehiago.

3. Ideia bakoitzarekin proiektuan landu ahal diren gaiak: helburu didaktikoak, metodologiak, edukiak eta abar zerrendatuko ditugu. Atal honetan azaldutakoarekin batera, arlo desberdinen artean burutzeko aukera kontuan izan dezakegu.

Hurrengo orrialdean datu horiek jasotzeko taula dugu.

PROIEKTUAK SORTZEKO AUKERAK		
Ideien jatorria	Aukeraren deskribapena	Proiektuan landu ahal diren gaiak: konpetentziak, metodologiak, helburu didaktikoak, edukiak...
IKASLEEN INTERESAK		
INSPIRAZIO ITURRIAK (liburuak, filmak, abestiak...)		
HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN PROPOSAMENAK eta ESKARIAK		
GERTAKARIAK		
EGUN BEREZIAK		
GIZARTEAREN PROPOSAMENAK		

2. PROIEKTUAREN HELBURUA

Proiektu bat prestatzerakoan argi izan behar dugun lehenengo gauza helburua da: **ZER, NOLA eta ZERTARAKO egingo dugu ?**

ZER egingo dugu ? Proiektuaren ideia edo gaiak emango digu galdera honen erantzuna. Proiektuari izena jartzea beharrezkoa da, egingo duguna modu errazean identifikatzeko. Atal honetan proiektuaren erronka zehaztu beharko dugu, hau da, proiektuaren bukaeran lortu behar dugun emaitza zehaztuko dugu; produktu bat, joko bat, erakusketa bat, antzezlan bat, bideo bat, argitalpen bat sortuko dugu ?

NOLA egingo dugu ? Galdera honen erantzuna metodologia atalean azalduko dugu, *Proiektua curriculumean* atalean.

ZERTARAKO egingo dugu ? Lortu behar dugun emaitza edo produktuaren azken helburua edo erabilera zehaztea proiektuaren ildoak finkatzeko lagungarria izango zaigu. Norbaiten aurrean erakutsiko dugu egindako lana ? Argitaratuko dugu ? Kideentzat baliagarria izatea nahi al dugu ? Beste batzuek guk sortutako emaitzak euren ikasketa prozesurako erabilgarria izatea nahi dugu ?

Proiektu batean lortutako azken emaitzak hainbat erabilera izan dezake, beraz, proiektuaren helburuak finkatzerakoan atal honetan aipatutako gaiak kontuan izatea beharrezkoa izango da.

3. PROIEKTUA CURRICULUMEAN

Proiektuaren gaia eta helburua kontuan izanik, hurrengo urratsa proiektua burutzeko helburu didaktikoak, metodologia eta eduki egokienak aukeratzea izango da. Hurrengo galderari erantzunez; *Proiektuarekin zeintzuk helburu, metodologia eta abar lantzeko aukera izango dugu ?* proiektuan landuko duguna curriculum osatzen duten atalekin harremanduko dugu.

Ondorengo orrietan proiektuan zehar landuko ditugun atal desberdinen (helburuak, edukiak, ebaluazioa, jarduerak, metodologia eta baliabideak) deskribapena egiteko ereduak proposatzen ditut.

Helburu didaktikoak, edukiak eta ebaluaziorako proposatutako eskemak berdintsuak dira. Gai hauei buruzko informazioa biltzeko orriak dira. Hauetan oinarrituz, proiektua aurrera eramateko diseinatuko ditugun jarduerak azaltzeko orriak agertzen dira. Jardueren azalpenean metodologia, baliabideak eta bestelako informazio osagarria azalduko da.

HELBURU DIDAKTIKOAK

Proiektua (izena):
HELBURU DIDAKTIKOAK

EDUKIAK

Proiektua:
EDUKIAK

EBALUAZIOA

Proiektua:	
EBALUAZIOA	
Helburua: _____	Ebaluazio irizpidea eta adierazleak
Helburua: _____	Ebaluazio irizpidea eta adierazleak
Helburua: _____	Ebaluazio irizpidea eta adierazleak
Helburua: _____	Ebaluazio irizpidea eta adierazleak

Ebaluazioa egiteko erabiliko ditugun bestelako baliabideak (errubrika, ikasleei ebaluazio txostenean azalduko zaizkien gaiak eta portzentajeak) bertan azaltzea egokia litzateke. Era horretan ikasle eta irakasleok ebaluazioa osatzen duten atal guztien ikuspegia izango dugu.

JARDUERAK

Proiektua:
1. JARDUERA
Jardueran lortu beharreko helburua :
Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa :
Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik:
Metodologia (Taldekatze mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak):
Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak):

Proiektua:
2. JARDUERA
Jardueran lortu beharreko helburua :
Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa :
Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik:
Metodologia (Taldekatze mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak):
Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak):


4. PROIEKTUAREN HEDAPENA

Proiektuaren hedapena egitea lortutako azken emaitza edo produktua eta horraino ailegatzeko jarraitutako prozesua erakusteari dagokio. Zer azalduko dugun gure komunikazio helburuen arabera zehaztu beharko dugu.


Kontuan izan behar dugun beste atal bat gure azalpenaren hartzaileak izango da, nori azaldu nahi diogu egin duguna ? Ikasleei, irakasleei, familiei, gizarteari... ?

Gaur egun, baliabide digitalei esker, egindako lanak erakusteko modu erraz asko daukagu; Internet, argitalpen digitalak, YouTube edo sare sozialak adibidez. Hauez gain beste hedabide asko erabil dezakegu proiektua erakutsi eta ikuslegoarengana ailegatzeko: erakusketak, argitalpenak, landutako gaian sakontzeko jarduerak, antzezlanak eta abar.

Landutako prozesuaren arabera, lortutako emaitza beste ikasle batzuekin partekatzea eta proiektuaren edo emaitzaren inguruan jarduerak antolatzea hedapenerako beste bide egoki bat izan daiteke. Proiektuan ikasi eta landutakoa beste ikasle batzuekin partekatzerakoan azalpen lana egin beharko dugunez, landutako edukiak hobeto bereganatzen lagunduko digu.



YouTube, erakusketak eta argitalpenak gure proiektuaren hedapena egiteko baliabideak dira.



Proiektuan landutako prozedurak eta lortutako emaitzak beste ikasleekin partekatzea hedapena egiteko modu interesgarria izan daiteke.

Proiektuaren aurkezpena egiterakoan, hedapena egiteko ekarpenak proposa eta lor daitezke baita.

5. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Nola aurkeztuko diegu proiektua gure ikasleei ? Modu askotara egin dezakegu, baina proiektuaren jatorria kontuan izatea beharrezkoa da, ez baita berdina izango ikasleen interesetik edo Hezkuntza Komunitatearen eskari batetik sortutako proiektua aurkeztea. Horren arabera, aurkezpena prestatuko dugu:

- Zer kontatuko diegu ikasleei interesa sortzeko ?
- Ze materialetan oinarrituko gara ?
- Zergatik uste dugu ikasleen interesekoa izango dela ?

Proiektua bere osotasunean ulertzeko, landuko ditugun gai desberdinak azaltzen baditugu, helburuak, edukiak, ebaluazioa, jarduerak, metodologia, baliabideak, erronka, aplikazioak, hedapena eta abar, parte hartzaileek ikuspegi osoa izango dute eta hobeto ulertuko dute proiektuaren ZER, NOLA eta ZERTARAKO atalak.

Gure ikasleek gain, gure ingurukoek ere proiektuaren berri izan dezakete; beste etapa, maila edo arloetako ikasle eta irakasleak, familiak, gizartea...

Hezkuntza Komunitateak proiektuaren berri izatea interesgarria izan daiteke, eragile desberdinek euren ikuspegia eman eta parte hartzeko aukera izan dezaketelako.

Proiektuaren aurkezpenean atal desberdinei buruz parte hartzaileen iritzia eskatzen eta kontuan izaten badugu, parte hartzaileek proiektua euren bezala ulertuko dute eta inplikazio maila handituko dugu. Ziur asko, parte hartzaileek proiektuaren helburua, curriculumean lantzeko gaiei eta hedapenari buruzko ekarpenak egin ditzakete.